

# Euskarazko zientziaren ezagutza-grafoa eraikiz

A. Astigarraga<sup>1</sup>, M. Bidaguren<sup>1</sup>, D.Lindemann<sup>2</sup>

(1) Udako Euskal Unibertsitatea (<http://www.ueu.eus>, [a.astigarraga@ueu.eus](mailto:a.astigarraga@ueu.eus))

(2) Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)



## Sarrera eta motibazioa

**Helburu nagusia:** Euskarazko ekoizpen akademikoa jasoko duen ezagutza-grafoa eraikitzea.


Horretarako, INGUMA datu-basea abiapuntu gisa hartuta

- INGUMA-ren edukiak Datu Lotu Irekiak paradigmara pasa
  - Azterketa bibliometriko berriak ahalbideratzeko
- Euskal ekoizpena Wikidatarekin lerrotatu
  - Euskal zientzialarien eta ekoizpenen ikusgarritasuna handituz
- Euskaraz egindako ikerketa sustatzeko tresna garatu

## INGUMA datu-basea

1968tik euskaraz argitaratutako ekoizpen akademikoa


- Artikulu zientifikoak: 17.988
- Egileak: 13.479
- Liburuak: 2.793
- Liburu-atalak: 6.493
- Doktorego-tesiak: 920
- Aldizkariak: 132
- Itzulpenak: 931



<https://inguma.eus>

## INGUMA-WIKIBASE (2022tik)

- LOD lan-ingurunea
- Hirukote semantikoetan oinarritutako datu-base eredu
- <https://wikibase.inguma.eus>



Abantailak:

- Datu-base galdeketa aurreratuak egin daitezke erraz, interfaze grafikoan (baita konputazionalki ere)
- Datuak prest geratzen dira Wikidatara bidaltzeko edo lotzeko

## Ikerketa azpiegitura berria



- Testu osoak prozesatzeko tresna-katea: zitazio-erlazioak erauzi eta testuak lematizatu eta linguistikoki anotatu.
- Web garapena: Scholia tresnaren antzeko erabiltzaile-interfazea
- Gordailu digitala: euskarazko produkzioa jaso eta sarbidea emateko.



GROBID GeneRation of Bibliographic Data

## IKERGAZTE I-IV (kasu praktikoa)

- IkerGazte kongresuko argitalpen-metadatuaren gaineko azterketa bibliometrikoak
- INGUMA-WIKIBASE eta SPARQL
- <https://wikibase.inguma.eus/wiki/IkerGazte>



## Etorkizuneko asmoak

- Testu osoak batu eta prozesatzea
  - IkerGazte kongresuko artikuluekin hasi
  - Zitazio-erlazioak metadatuari gehitu
    - Nork aipatzen du noren lana?
    - Zenbat euskarazko artikulua aipatzen dira?
  - Prozesamendu linguistikoa
    - Artikuluaren gorputzetatik corpusa eratzea
    - Hizkuntza aztertu, terminologia erauzi
      - Artikuluaren metadatuari gehitzeko
- Euskarazko ekoizpen zientifikoa nazioarteko testuinguruan erakustea

- Wikidatarekin lotzea
  - Artikuluaren eta egileen deskribapenak Wikidatan txertatu
  - Inguma-Wikibase eta Wikidatako entitateak elkarrekin lotu
  - SPARQL galdeketa federatuak ahalbidetu

## ERREFERENTZIAK:

Lindemann, D., Astigarraga, A., Bidaguren, M., Delgado, E., Gonzalez, G., eta Sarasola, K. (2023). Inguma eta Wikidata uzartuz, euskarazko zientziaren ezagutza-graforantz. Miren Azkarateri esker onez (or. 193–210). UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. <https://doi.org/10.5281/zenodo.7902516>

Lindemann, D. (2022, urriak 13). LOD-ification of Bibliographical Data Using FreeSoftware: CLB-LOD Wikibase. <https://doi.org/10.5281/zenodo.7250729>

